

LAW BILA

IMANOL



Errepidea estua eta bihurria da honelakoetan, ezezaguna. Berdin dio autobidea nahiz bidezidorra izan, galdera ikurretan tolesten da, erantzunik ez duten itaunetan. Errepidea inkognita bat da, erantzuna helmugan bakarrik baitago. Eta neu omen naiz gidaria metafora honetan. Bai? Nik ez dut hala uste. Istorioaren parte bat besterik ez naiz, objektuaren errolaz arduratzen den estra bat, protagonistak, berriz, han daude, han dauzkate zain hariak agintzen dituzten eskuak, bidearen bukaeran alegia. Harantz noa ni, trapu dardartizko

txotxongiloa sentituz, eskuetako izerdiak bolantearen plastiko-taktua hezetzen didala aspaldi ohartuta.

Xabierrek du guztiaren errua... enfin, zerbait esatearren, egia esan inork ere ez baitu honen errua, edo hobeki esanda denok. Egunkariaren orrietan saltsatzen zebilelarik, orain galtzetako atzeko patrikan daramadan iragarkia topatu zuen: Puntako enpresak 20-25 urte bitarteko gazte dinamikoak behar ditu, ez da esperientziarik behar, taldean lan egiteko eta gorantz egiteko gogoia besterik ez. Beno... gaztearena, tira... baina dinamikoa... ez naiz gehiegitxo identifikatzen

ezaugarri honekin, eta orain inoiz baino gutxiago, baina kia! ez naute ezagutzen eta honetan zorte piska bat izanda, desesperazio dosi altu samarrak ematen duen ausardiaz baliatuz, dinamikoz mozorrotu banaiteke, engaina ditzaket agian. Beste baldintza guztiak ongi ala ozta-ozta betetzen ditut: gaztea naiz, ezta? hala dio karnetak behintzat eta ez da esperientziarik behar, ezta neuk eskaini ere. Baina, zer arraiotan aritzeko da? ditxosozko iragarkiak ez du beste argibiderik ematen, autoa edukitzea komenigarria dela bakarrik... bakarrik, ja! deialdia lekutan da bederen! eskerrak gurasoen auto xaharra lortu ahal izan dudanari, akabo bestela! Kostata izan bazen ere, ama beldur baitzen nire gidatzeko trebeziak eta aita gorpuzteko atal ezinbestekoren baten faltan geratu izango balitz bezala eman baitit autoa erabiltzeko baimena eta, batez ere, giltza.

Hementxe nago, bada, metafora honetan barrena, gaubeilak gorritzatutako begiak lainoaz haraindi kokatu nahirik, zeren eta, lehenago azaldu ez dudanez, poesiarako egun aproposa suertatu baitzait gaurkoa, ez, ordea, gidatzeko: lainotsua eta bustia, sekretuen gordailu dentsua.

Errepidea jorratuz noa, bakardade zuri-ilunean zuloa irekiz, ezker-eskuineko abismoen ikarak adi mantentzen du ene gauzez nekatutako burua. Luze joan zait eta egunsentirako bidaia, neketsu, egonezin geldiareskan bilan ihes egin baitit loak izuturik, neu ilargiaren menpe utzita. Neuk, lo beldurtia gaueko zoko ezkutuenetan bilatu badut ere, ezinezkoa izan dut harrapatzea, ezinezkoa. Halere, iratzargailuak zein, gehien bat, halabeharrak bultzatuta, kalera egin dut jauzi -egin naiz jausi... ez dakit- goizaren bihotzera, amaren musu amoltsuaz gain beste ezer gosaltzeko ezgauza nintzelarik. Baita abiatu ere, eserleku izoztuaren hotza neureganatuz, kristaletako lurrin ihintzatuari mesedez joateko eskatu ondoren. Eztul itsusiak botata egin du aurrerantz auto xaharrak, orroaka, lozorrotik atera izanaren kexu nonbait, eta bideari ekin diogu zalantza-balantzan faroek urtutako hezetasun oraindik beltzean murgilduz.

Baina aspaldi izan da hori, buruko berotasuna aritzeko ahalegin antzuan irratiko hitzontzien laguntza aurkitu nahi izan dudanean. Ordu-txikitako konfesio aitortezinen sirena kantuek erakarri naute une batez, tristura inozoaren sarean erortzeaz nintzela ohartu arte. Orduantxe, amorruz, eskuarekin zapla! jo dut

iluntasuna eta kasseta jarri da martxan. Ez zegoen ezer sartuta, musikarik ezean, isiltasunak erantzun dit, eskerrak!

Goiz zen oraindik, goizegi, eta neu, bidea bezain bakarti, gaua bezain ilun, banindoan.


Eta oraintxe, ordu bat beranduago daramadan lelo bera neraman orduan ere, zenbat egunkari errekorre galtzetako atzeko poltsikoan, zenbat goiz ilun beste horrenbeste gau luze-luzeei jarraiki, zenbat joan urduri beste horrenbeste itzulera etsien aitzindari, zenbat...zenbat?

Lehenengoan gazteegia nintzen, antza, aseguruak saltzeko; hurrengoan, praka bakero zulatuak neramatzan, zarpatsuegia farmazia baterako; beste behin, test ulertezin nahiz surrealista horietako batean baztertu ninduten eta supermerkatuak talde-dinamika hartan, berriz, tipo bizardun batek begiak atera zizkidan ia alkondara marradunezko uniformeak eta kolore bizietako txapeltxoak barregarriak direla esateagatik; segurtasun enpresakoan alde egin nuen pistola eraman behar genuela entzun bezain laster sartu zitzaidan hotzikararekin ondoezik sentitu nintzelako; hiritik paketeak bizikletaz banatzeko hartarako, aldiz, helduegia omen nintzen...

Gaurkoa beste bat gehiago izan liteke, liburuak, aseguruak, pizzak, taberna, arrandegia... auskalo, ni banoa, zaharregia, zarpatsuegia, urduriegia, serioegia, gazteegia, dotoreegia edo beste edozein gauza "egia" izateko arriskuan jarri arren. Paradoxa itzela ezertan gehiegia ez den batentzat...

Eta kilometroak irentsiz, egunak esnatzea erabaki duela dirudien bolada honetan, lehenengo autoekin topo egiten hasi naiz, lanera doazen horiek izango dira -neure antzera, bere estreinako itxurazko lanaren bila doazela pentsatzeko joera dut gaurkoa bezalakoetan, baina hori gehiegizkoa dela ohar naiteke-. Lanera doazenak. Lanera!

Lo-haserre aurpegiak antzeman ditzakedala iruditzen zait, langarraren eta kristal lurrinduen ostean. Goiz jaikitzea gorrotatuz, ametsak bete ahal izateko behar ei den lan hori madarikatuz doazela imajinatzen dut. Eta kexu izango dira, zalantzarik gabe, jasotzen duten mixeriararik ohe epelari eta bizitzaren zatirik



handienari lanaren/diruaren
truke muzin egin behar izateaz...
seguru nago, maiz entzun dezakedan
abestia, musika zelestiala da niretzat.

Ilunabarretan industriadetako tailerretatik
lan eske etsi samarrean ibiltzea bai dela mixeria,
egun osoa niretzat omen dut, bai eta zera ere!
Ikastaro hartara, Boletin Ofizialak arakatzera
liburutegi honetara, kurrikulumak edonora...
kurrikulum adina maitasun eskutitz bidali izan
banu, Bergerac-eko Cyrano hutsaren hurrengo
nire ondoan!

Bai, gogorra izango da lan batean aritzea,
egunak joan eta etorri, monotoniaren segida
amaigabea, pieza berdina milaka, milioika aldiz
aurretik pasatzen ikusiz, adreiluari zementua
aurpegi batean eman eta aurrekoaren ondoan
kokatuz, leihatilara asomatzen direnen kezka eta
nahigabeak adituz... eta neu zer? telefono-
hotsaren zain, goiz, arratsalde edo egun osoak
azkenean helduko ez den deiaren esperoan?

Bai, ikusten ditut/zaituztet, ostiralaren zain,
animalia kateatuak bezala, gero eta motzagoa
egiten zaien/zaizuen asteburuari begira, igande
arratsaldeko ilunabarretan gainbehera samar,
astelehen goizeko etsipena irentsi ezinik, eztarrian
halako pilota daramatela/daramazuela. Bai, jakina
ikusten dudala. Eta, egun bakoitza aurrekoaren
antz-antzekoa denean? astegun-asteburu-gabon-
astesantu-udara... gehienak berdintsuak direnean?
zer diote/diozue horri?

Horregatik abiatu naiz gaur gurasoen
autoan, inoiz entzun ez dudana ETT horietako
batera hurbildu eta nire imintziorik arinena
behatu, aztertu, baloratu eta epaituko duten
ezezagun batzuekin elkarriketa bat gehiago
egitera. Bat gehiago. Ziurrenik, ez azkena.


Langabezian egoteagatik, lotura barik
alegia, nahi dudanean mendiko botak jantzi eta
egun pare baterako motxila beteaz, norabide
zehatzik gabe ateratzea atsegin dudana arren,
edota etxean, gaua lagun, paper zuriaren aurrean
sekulan amaitzen ez ditudan ipuinen idazketan
aritzeak bizirik nagoela eta bizitzaren gozotasuna
niretzat ere eginga dela gogorarazten badidate ere,
ez naiz konforme. Neuk ez baitaukat bohemiaren
bihotzik, halaxe egin ninduten, ezin ahaz dezaket
egun baten atzetik bestea datorrenik, ezin bizi
naiteke geroaren ezjakintasun hutsean.

Horrexegatik, ohitura bihurtzen ari ote den beldur,
aldian behin ateratzen naiz etxetik, trenez,
autobusez eta, aldiro-aldiro, gurasoen autoa
hotzikaratzeko batez hartuz, azkenean emankorra
izan litekeen elkarriketara, frogara edo dena
delakora.

Bat-batean, espektro batenak bailiran, bi
begi erasokor sortu diru gandu itsaskorraren
altzotik. Beginirik gabeko begirada zuri-zuria,
urduria eta amorruez bete iruditzen zaidana,
ezkerretik ezin eta nire gainetik pasatzeko prest
legokeena. Nik ezin dut azkarrago joan, ezta nahi
ere, badut nahikoa lan bolantean doan ezker
eskua, palanka doan eskuina, enbragearen
gaineko/ondoko ezker oina eta, batik bat,
balaztatik azeleragailura, harraparien beldur lorez-
lore dabilen intsektu urduriaren antzera
daramadan eskuina zaintzearekin. Eginbeharrez
gainezka noa. Izerdiak, hotz, besape eta bizkar
bustiak ekartzen dizkit gogora. Beti bezala, gaur
ere, helmugara iristean, oinpean daramadan
alfonbratxoa hankaz gora agertuko da, egurrezko
bolatxoekin eserlekuko estalkia erabat lekuz
kanpo, arropak gorputzari erantsita eta autoa nire
usain sarkorraz perfumatuta. Gaur ere, gainera,
betiko legea, tabernaren batean sartu eta menta-
infusioa eskatuz, komunera joango naiz pittin bat
txukuntzera eta kuxidadez jaztera hura hoztu
bitartean; nahi gabe bada ere, jadanik erritual
batez burutzen baititut honelako konpromezuak.

Atzeko bi begiek, bat-batean, heriotz keinu
egin diotela otu zait, azeleroi batez nire pareraino
ailegatu eta, segidan, atzetik aurrera eta zurretik
gorrira bihurtuz, premiazko distira laranja batekin
eskuinera kolpean itzulita, ihes egin dute
beltzunean barna agur esateke, apurka-apurka
urrutiratuz bidea ireki didatelarik. Eta bakardadean
abandonatu naute berriro. Ohitu naiz jada, etorri
eta joango dira gehiago, errepidearen legea da,
bizitzarena ere deskuidoan.

Errepide honek zinta beltz amaigabea
izateko trazarak ditu, jatorriari bueltan eramango
nauen alferrikako fartsa mingarria baino ez. Garbi
dago, ezin uka dezaket etsipenarekin izandako
borroka laburrean amore eman dudala. Apustu
egitea galtzeko arriskuarekin aurrez-aurre jartzea
dela onartzen dudana bezalaxe, honez gero ez naiz
galtzeko ia erabateko ziurtasunarekin jokatzeko
gogoz sentitzen. Muturrekoak bata bestearen
atzetik jasotzera naraman estrategia zentzugabe
hau aldatu beharko dudala jakinda ere, alternatiba



ezak itotzen nau. Obsesio
bilakatu den lanean hasteko gogoak
beste ezertan pentsatzea galera izaten
didala ohartu naiz. Dagoeneko ez dakit
zertarako izan naitekeen gai, izan ere, hainbeste
lekutan ezetz borobilak edo isilune adierazgarriak
jasotzearen poderioz, neurritz kanpo ahuldu zait
nire buruarekiko konfidantza. Ihes egin behar dut
bukle kaltegarri honetatik, etsipenari osteria jarkiz,
baina atsedean hartzeko premia dut, hobe nuke,
akaso, tarte batez egunkarietako lan-poltsa eta
iragarkiez ahaztea, etxetik itsu-itsuan atera eta
hara edo hona joateari utzi. Aspaldiko zaletasunei
berriro heldu, erreflesiorako tarte bat egin ea
ondoriorik atera dezakedan.

Artean, arestiko lainoa eta gaua eguzkitxo
bustian urtu dira goizari itzalez nahiz isladaz
jositako paisajea oparituz. Gutxitan ibilia naiz
paraje hauetatik, baina ez dut uste inoiz gaur
bezain ederrak topatu ditudunik. Errepideak
gorako joera duenez, izarapean dagoen arana
ikus/antzean dezaket eta bat-batean hau guztia
kontenplatzeko itzaliezinako gogoa piztu zait.
Garaiz noa, presarik gabe eta gora ailegatu bezain
laster, autoa baztertu eta kanpoko argitasunera
irtengo naiz, urruneko mendikate ezezagunei
begira, soineko tentsioa arintzeko asmoarekin
paseotxo bat ematera. Halaxe egin dut gora
heldutakoan, motorea itzali eta kanpora!

Egunak hemen, ezin poliki astindu ditu
nagiak. Izarrez blaitutako udazken-zeru arras
garbiak, bere esku izoztua pausatu du bazterretan
eta oraindik itzalpekoak diren magalak zuri-
berdeska ilunaz koloreztaturik dauzka, jada eguzki
izpietara irtendakoek, berriaz, halako zilar-islada
barnizaturik dirudite mendi tontorren artetik
gainezkatzen den egunsenti gorrian.

Zernolako lasaitasun sentiazioa nuen
konturatu orduko oroitu naiz hor egotearen
arrazoiaz, eta nire buruari zin eginarazi diot gaurkoa
zela azken saioa, huts eginez gero piska bat lasaitu
eta bide berriak jorratzen hasiko nintzela esanez.
Bizipen gehiegi zokoratu ohi ditugu ezinezkoa
gertatzen baitzaigu iturri guztietatik edatea, eta
askotan garrantzak iruditzen zaizkigu hartzen
ditugun zurrutadak, garrantzasunaren arazoia
urarena baino ahoa mikaztuta dugulako dela
konturatu gabe. Halakoxea da lan puñeterorik ez
izatearena, obsesioaren pozoina barreiatu dit
odolean eta noragabetu egin nau zeharo. Egoera
honekin hautsi beharra daukat okerragora jo nahi

ez badut. Bai, azken saioa izango da gaurkoa,
parentesia irekitzeko garaia heldu zait.

Autora osteria ere. Azken bistadizoa aurreko
ikuskitxo lasaigarriari. Esangura zehatzik gabeko
hasperen baten. Mendiko haizearen arrastoa
bisaian sentituz eragin diot giltzari bihotz
mekanikoaren zurrunga ozena berriro bizituz.
Errepidera.

Ez zait batere leku itsusia iruditzen.
Atsegina izan liteke bizikleta hartu eta hemendik
barrena galtzea. Pentsatzekoa da. Pentsatuko dut...
bihar.

Errepidea beherantz, lainoaren kotoizko
azalean murgiltzera doa, bolanteari tinko helduta,
ezerezean amildu naiz neu ere. Hemen dena da
hezea, bide bazterreko harri diztirsuak, kristalak...
herrirantz erortzen uzten ari naiz, lainopeko
mundu honetatik, hanka balaztatik altza gabe.
Helbideaz gogoratu nahi eta ezin, mugimendu
batez, haztamuka, atzeko patrika arakatu dut
papertxoaren bila. Arazorik ez, galdetuko diot
norbaiti.

Ez dago lainorik jada. Bailara osoa
antzean daiteke sabai ondulatu nabarraren
azpian goibel. Herria zulo-zuloan dago, mendien
magaletara helduta, irrist egitera doala dirudi,
itxurazko zirimola batean desagertu, hain baita
maldatsua. Lantegiek zeruko sabai arrea elikatzen
dute, potoltzen, euren tximini luzeetatik irtendako
zutabe ketsuekin eutsiz.

Behean nago ia, hona ekarri nauen
egunkari errekorrea ateratzeko unea. Kartel busti
herdoildu baten ongi-etorriari jaramonik egin
gabe, beharrean ari diren langileei begira dagoen
agure bati hurbildu natzaio, lehiatila jaitsiaz
helbidearen berri eskatzeko. Egunon esan diot,
bera makulua lurrean iltzatuta bailuen astiro
biratu delarik, berdin! erantzun eta nire
galderaren zain paratu da, bere jakituria lau
haizetara zabaltzeko irrikitan. Papertxo zimurtua
txuleta moduan dudalarik eskatu diot joan
beharreko lekuaren notizia. Hura azalpena! Luzea
eta aberatsa, zehatza, denbora katilukada
sakonetan hartzera ohituta daudenak bezala, egin
behar den stop, hartu behar den bihurgune,
errespetatu beharreko semaforo bakoitza
deskribatu dizkit, kale kantoi bateko armarria
aitzaki zuelarik, Bigarren Karlistadaren nondik-
norakoak ulertzeko zenbait klabe historiko barne.

Milesker Jauna! Uf! hau informazio betekada! eskerrak hain goiz jaiki eta nekatuta sentitu arren benetan ezinbestekoak ziren xehetasunak harrapatzeko gauza izan naizen: kalean barrena segi Aurrezki Kutxaren ondoko kalegurutzeraino, han eskuineratz biratu eta, eliza paretik pasatuz, Dorretxerantz jarraitu eta kale bat lehenago berriro eskuinera... eskuinera? Beno, berdin da, azkenean pare bat aldiz gehiago galdetu beharko baitut.

Sekulako inbidia eman dit agure lasai horrek, bere olentzero-jarrerarekin, bere patxada kutsakorarekin. Lortu nahi nituzkeen zenbait dohainen jabe zen, gaur egun niretzat atzemanekin direnak... bizkar makur samarra eta makulua negoziabileak dira. Aski lan egin izan eta, orain, besteen jarduna ikuskatzeari emana, larunbata arratsaldeak, igandeak eta jaiegunak gorroto izango ditu ia seguru, a ze tipoa!

Beno ba, hementxe gaude, beste argibiderik behar izan gabe heldu naiz. Ez naiz bakarra, beste batzuetan ere topatutako zenbait jende dakusat. Hatzazalei koska eginez, zigarrotxoa azkenekoa balitz bezala zurrupatuz, lurreko papertxoei ostikoak emanez... geratu gabe zeharkatu dut kalea, kotxea uzteko tartetxo baten bila. Garbi ikusi dut, froga bat da, betiko hamaika mila eta bostehun lelokeria galdetu, eta hamaika mila larehun eta larogetitapiko gezur erantzuten diren horietakoa. Eta Hiper-Maxi-Super-Artxi-Mega-Txatxipiruli bat dela egingo nuke lepoa.

Ostiya!

Akabo bihar nire bizitza berriro hastearekin, froga bat gaur, datorren astean bestea, talde-dinamika bat hemendik hamabost egunera eta ikastaro praktikoa, elkarriketaren ondoren noski. Fruterian behin, disketan hurrengoan, biltegian beste behin eta prezioen karteltxoak jartzen beste hiruzpalau egun, hauxe baita formazioen kontinua delakoa, zorabio kontinuoa esango nuke; eta hori gutxi balitz, ezin libratu barregarri sentiarazten nauten uniforme urdin, berde edo gorriez. Kagendioro! Kristoren aparkaleku librea ikusi dut, trailerra sartzeko halakoa. Eskuinera baztertu, geratu, atzerako martxa sartu, ongi...ongi... pittin bat atzerago, ederki! orain bolantea eskubira berriro, segi atzera! ongi...ongi... trabesegi, bai, trabesegi, Plotx! gurpilak musukatu espaloia. Ongi aparkatu nahi izanez gero, berriro hasi beharko... berriro hasi? bihar? datorren hilean? zabor-kontratua amaitutakoan? eta zergatik ez aprobetxatu dagoeneko primera sartuta dudala? segunda gero, kalean barrena segi Aurrezki Kutxaren ondoko kalegurutzeraino, han eskuineratz biratu eta, eliza paretik pasatuz, Dorretxerantz jarraitu eta kale bat lehenago berriro eskuinera... eskuinera? zergatik ez ibilbide guzti hori berriro egin baina alderantziz, ihesian alegia, makuluan apoiatuta segituko duen agureari agur esan, ongi-etorriko kartel herdoildu eta bustiaren atzealdeari adio eta gora, laino-maindirea zeharkatuz, paisaia osteraren kontenplatzerara. Eta etxera itzuli, jakina. Atzo bezala, beti bezala. Auto xaharraren goraino betetako depositoa izandakoaren argitxo gorri salatarioa piztuta dagoelako baino ez dudalarik oroitu gaur eginiko bidaia hutsala baina erabakiorra. ♦

